

Lurren balio igoeraren gaineko zerga (Gainbalioa)

Kuotaren kalkulua

Zizur Nagusia

Xedea

Lurren balio igoera zergapetzen duen zuzeneko zerga, jabetza eskualdatzearen ondorioz agerian paratuta.

Organo kudeatzailea

Zizur Nagusiko Udaleko Ogasun Departamentua.

Eskaera bideratzeko epea

- Bizirik dauden arteko egitateak (salerosketa): eskritura datatik bi hilabete.
- Heriotzagatiko egitateak: heriotza gertatu den datatik sei hilabete; subjektu pasiboak eskatuta, urtebetera luzagarria.

Organo erabakitzailea

- Alkatetza.

Onuradunak

Irabazi asmoarekin egindako jabetza aldaketetan (dohaintza): eskuratzailerak.
Kostu bidezko jabetza aldaketetan (salerosketa): saltzailerak.

Baldintzak

- Gutxi gorabeherako kalkulu bat emanen zaie, honako datuok emanda:
- Zergapetuko den jabegoaren helbidea.
- Azken jabetza aldaketatik igaro diren urteak.

Aurkezteko lekua

Zizur Nagusiko Udaleko Zerbitzu Orokorren Departamentua.

Zenbatekoa

Kuotaren kalkulua: lurzoruaren eragin balioa bider azken jabetza aldatzetik igarotako urte osoak bider Udalak biztanleriaren eta igarotako urteen arabera ezarritako portzentajea eta bider onartutako zerga tasa.

Eskaera bideratzeko epea

- 15 egun inguru.

Dokumentazioa

- Eskritura (originala eta kopia).

Araudia

Lurren balio igoera arautzen duen Ordenantza fiskala.
Ordenantza Fiskal Orokorra.
2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Berariazko datuak

Dohaintzetan eta jarauntsi onarpenetan ez da gainbaliorik ordainduko; alabaina, katastro aldaketa egingen da.

Zerga kitapenaren kontra honako helegiteok para daitezke, hautaz:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza eman duen udal organoari zuzendua, ebazpen honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epearen barnean.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraikiz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan horren eskumena duen organoari zuzenduta, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpena egin denetik hilabeteko epean.

Aldaketa data 2006/01/10

Iraunaldia 2007/02/15